



**mensajes
enredados**

xa **sencillamente**
transformar la realidad

Ez dira zenbakiak

gerratik eta pobreziatik igesi doazan gizon eta emakumeak dira, eta eskubideak dabez

Zer da errefuxiatua?

Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Hitzarmenaren arabera, *“arraza, erlijinoa, herritartasuna, talde sozial jakin bateko kide izatea edo eretxi politiko jakin batzuk dirala-eta bere nazinotik kanpo aurkitzen dana eta bere herrialdearen babespean jarraitu ezin dauana edo, bildur horreek eraginda, jarraitu gura ez dauana; edo herritartasun barik egotean eta, gertaera horreek dirala-eta, lehen bere ohiko bizilekua eukan herrialdetik kanpo aurkitzean, bertara itzuli ezin dana edo, bildur horreek eragina, itzuli gura ez dauana”*.

Ze eskubide daukie?

Ondorengo eskubideok jasoten dira 1951ko Hitzarmenean:

- Kanporatua ez izateko eskubidea;
- beste Estatu bateko lurraldean legez kontra sartzeagaitik zigorrik ez jasoteko eskubidea;
- ordaindutako lana izateko eskubidea;
- etxebizitza izateko eskubidea;
- hezkuntza publikoa jadedesteko eskubidea;
- laguntza publikoa jadedesteko eskubidea;
- erlijinoa askatasunez aukeratzeko eskubidea;
- epaitegietara joteko eskubidea;
- lurraldean aske ibilteko eskubidea;
- nortasun eta bidaia agiriak egiteko eskubidea.



Errefuxiatuen, desplazatuen eta migratzaileen arteko aldea

Hainbat alde dago errefuxiatuaren, desplazatuaren eta emigratzailearen artean. Honeen arabera, lehenengoez eskubide batzuk daukiez eta beste gizatalde biei ukatu egiten jakez. Lehenengoei be ukatzen jakez, errefuxiatu lez autortzen ez dabezanean (babes-eskari gehienei ezezkoa emoten jake).

Baina ezin dogu ahaztu gizon eta emakume guztiek dabezala unibersalak diran eskubide batzuk. Estaduek bideak jarri behar dabez eskubideok asetzeko; ez bakarrik euren herritarrei jagokenez, lurraldean dagozan guztiei jagokenez baino. Hori egin ezean, lehen eta bigarren mailako gizon eta emakumeak sortuko doguz.

2015ek udan, Siriako gerratik igesi doazan gizon eta emakumeak albiste izan dira han eta hemen, komunikabideetan, politikoaren eta jentearen artean. Europako herritarren eta herrialde batzuen alkartasuna hedatuz joan da, gizon eta emakume errefuxiatu honeen beharrazanez erantzuten saiatzeko. Honen parean, zera

aurkitzen dogu: bai erakundeek eta bai gizartearen zati batek be, arrazoi ekonomikoengaitik migratzaile bihurtzen diranak, hau da, pobreziatik igesi egiten dabenak, estigmatizatu eta baztertu egiten dabezala.

Ezinbestekoa da, gizon eta emakume guztiek harrera izatea eta euren beharrazanez eta eskubideak asetzeko laguntza jasotea merezi dabela.

Errefuxiatuei buruzko kontuak

- **Hirurogei milioi lagunen urteera.** Egundoko jente-oldeak itzi behar dau derrigorrez bere etxea, euren kontrolerik kanpo dagozan egoeren aurrean babesa bilatzeko. Askotan zenbakietan geratzen gara, horreetako bakoitzaren atzean persona bat dagoala ahaztuta.
- **Benetako arrazoiak.** Egoera gehienak gatazka belikoen ondorenak dira eta dalako gerra horreek mendebaldeko herrialdeek bizten dabez, lehengaien (gasa, petrolio, koltana mobikorrentzat...) kontrola lortzeko.
- **Adabakiak eta konponbide ez globalak.** Europar Batasuneko agintariek hamabost egunez behin personak dirala ahaztu eta kuoten inguruan eztabaidan jarduteko batzarrak antolatzen dabez bitartean... Komunikabideek berehala eta jente-olde erara helduko dirala ikustarazo gura daben bitartean... Herritarrek eta gizarte mobimentuek antolatuta eta alkartasunez erantzun dabe beste behin be. Halanda be, ez dogu ahaztu behar:
 - Gure herrialdeak dirala, gaur be, gizon eta emakume honeen igesa eragiten daben gatazketan erabilten diran armen ekoizle nagusiak.
 - Aspalditik heltzen dirala gure uri eta auzoetara atzerritarrak eta ate asko itxi jakela eta, ondorioz, gure gizarteetan txertatzea galarazo.
- **“Erantzun” gatxa.** Errefuxiatuen beharizanei eta eskubideei erantzutea ez da egiteko erraza. Erantzun hori ez dogu epe laburrera planifikatu behar eta osoko laguntza emotera (osasuna, hezkuntza, etxebizitza, gizarteratzea, nork bere kulturari eustea...) zuzendu behar doguz gure politika eta ekimenak eta ez dogu epemugarik jarri behar.
- **Europar alkartasuna vs Benetako alkartasuna.** Errefuxiatuen arazoa oraintxe hasi dala emoten dau, hau da, albistegietan luze eta zabal agertu danean, eta Europako herrialdeak dirala arazoaz kezkatuta eta erantzuteko prest dagozan bakarrak. Baina herrialde txirotuenean (Turkia, Pakistan, Libano, Iran, Etiopia eta Jordania) hartzen dabe munduko errefuxiatuen %86a.



Estekak, gehiago jakiteko:

- Errefuxiatuen krisiari buruzko informazioa kontsultatu, agiriak, ekintzak eta mobilizazioak:
 - http://elpais.com/elpais/2015/09/12/media/1442076750_414597.html (grafikoa)
 - <https://www.hrw.org/es/topic/refugees>
 - [15 preguntas clave.](#)
- [CEAR-ren kanpaina: “¿Quién da menos?” \(bideoa\).](#)
- Kristau ikuspuntutik:
 - [“Cristianisme i Justicia”-ren paperak \(pdf\)](#)
 - [Bilboko Elizbarrutitik \(pdf\)](#)



Proposamena:

Sinatu eta zabaldu **#UERfanos** CEARen kanpaina. Une honetan, Estatu espainiar osoko herritarren **18 mila sinaduratik** gora dagoz batuta. Sinatu esteka honetan: <http://www.uerfanos.org/>

Lagundu boluntario lez emigratzaileei laguntzen deustien gizarte erakundeei. Laguntza hori dirua emonez be gauzatu daiteke.

